

Euskal Batasunaren Biltzarrean emandako hitzaldia

AGUR aberkideok: Ohore handia da niretzat gaur hemen, Iparraldean, 'Herri Batasuna' ren agur beroa zuoi neronek ekartzea.

Azken bolada honetan "modan" jarri bide diren "operation filtre" horiek, ez baitira batera berriak: gu zatitzeko eta erdibitzeko asmoa ez da egungoa, ezta atzokoa ere.

'Herri Batasuna' ren agur honen bitartez, beraz, gure arteko erdibiketari esan nahi diogu "ez". Euskal Herria bakarra da mugaz bi alderdietan; gure nazio-hizkuntza Ipar eta Hegoaldean bakarra den bezala. Anai-arrebatzat zaituztegu benetan; eta hemen dakarkizuet, horrela, bestaldeko "Herri Batasun"eko lagun guztien agur anaikorra.

Baina gu bat izanik ere, gure herrian nagusi dauden indar okupatzaileak *biga* dira, eta *ez bakar bat*. Eta oinarritzko datu hau oso kontutan hartu behar dugu.

Etsai nagusiak *biga* dira. Eta, hortaz, Euskal Nazio Mogimendua funtsean, *estrategiari* dagokionez, bakarra izanik ere; Iparraldeko eta Hegoaldeko *taktikak* eta urrats politikoez desberdinak izan behar dute. Eta "behar" hitz hori azpimarratu nahi nuke.

EZKER abertzale osoaren helburu *estrategikoa*, bai espen laukun honetara bil daiteke: Euskadi *Askatua*, *Batua*, *Euskalduna* eta *Sozialista*. Lauok baitatxexkio elkarri.

Baina helburu *laukoitz* horrek, egoeraren desberdintasuna kontutan hartuz gero, *bide desberdinetara* behartzen gaitu.

Mimetismoan erortzea itsukeria litzateke. Hegoaldean Ezker Abertzaleak daraman borroka-moldea hemen *bere hartan* inportatzea, erokeria litzateke. Nola liteke, helburu *berera* iristekotan, abiapuntu *desberdinetatik* irtenik ere, pausu berberak eman ahal izatea? Nola liteke Erromarantz Paris-tik eta Budapest-etik irtenik, biotan norabide berbera hartzea? *

Zuek eta guk, denok elkarrekin, baina zuen iritzia funtsezkoena izanik, Iparraldeko urrats taktiko bereziak bilatu behar ditugu. Garbikiago esanda: Iparralderako hautabide taktikoa bilatu behar dugu denon artean.

Diren bezala ikusi behar ditugu gauzak. Eta, oso laburki, datu xume batzuek gogoraziko dizkizuet:

a) *Demografiaren* aldetik, ongi dakienez, euskal jendaketa %90a Hegoaldean bizi da. Frantzia, bestalde, Es-

painia baino jendetsuago izanik, hogeitaldiz inportanteago da euskal arazoa Espainiako Estatuaren barruan, Frantziakoaren barruan baino.

b) *Ekonomiaren* aldetik, bide beretik (eta ni ekonomilaria ez naizela aurretik esanda ere), Iparraldeko eta Hegoaldeko egoerak arrunt desberdinak dira. Baleren Bakaikoa ekonomilariak joan den astean azaltzen zuenez, *Baskongadetatik* bakarrik, eta Asurantz Sozialak kontutan hartu gabe, Madrilek 350 mila miloi pezeta jasoko ditu (lapurtuko, nahi baduzue, hemezortzi mila miloi libera, dix-huit milliards de francs lourds). Nafarroa gabeko datua da. —Iparraldeko zifrak esku artean ez badauzkat ere, garbi dago indar ekonomikoa han dagoela.

c) *Kontzientziaren* aldetik, bukatzeko, *abertzaletasunaren* aldetik, egoerak guztiz desberdinak dira han eta hemen. Han hiru aldiz altxatu gara harmatan Madrileko gobernuaren alde, 'liberal' zein fazista. Hemen inoiz ez. Han, Hegoaldean, mende honetan bakarrik, bi aldiz, eta ia 50 urte luzez, tokatu zaigu *diktadura militar* hutsa borrokatu beharra.

Ikastolen mogimenduak, bide beretik, ehun aldiz ikasle gehiago ikutzen du gaur Hegoaldean, Iparraldean baino. Etza bertan, Euskal Eskola Nazionalaren aldeko manifestazioan, 250.000 lagun bildu ziren Bilbora.

Hegoalderi dagokionez probintziarik txepelena Nafarroa izanik ere, Erreinu zaharreko boto abertzalearen kopuruak ia heren bat iritsi dira jadanik; Iruñean, jakina denez, gehiengoaren mugara hurbiltzen delarik.

Gauzak horrela daude. Zer egin, beraz? Egoera horri ez-ikusia egin, eta, *mimetismo* hutsez, hango organizazioak eta helburu taktikoak hona ekarri? Ez.

ETA hau ez da Hegoaldekoen 'inposaketa' bat; edozein abertzalek, *ipartar zein hegoatar* izanik ere, bere buruz, ezinbestean aurkituko duen ondorioa baizik.

"KAS Alternatiba" delakoa, hau egia da, *Hegoalderako* pentsatua dago funtsean. Badakizue noiz mamitu zen, eta noren inguruan. Hemengo puntu taktikoak, bost edo zortzi, denon artean finkatu beharko dira; baina zuen iritziaz batez ere kontutan hartuz.

Aisa berez daitezke hiru sail edo alor nagusi:

a) *Borroka harmatuarena*. — Hegoaldean erabiltzen delako honerako ere proposatzea, erokeria da. Hemen ez da-

go, gaur gaurkoz bederen, borroka harmaturik eramateko oinarriarik. Eta han egokia delako, hain zuzen, hemen desegokia da. Ez dugu dudan jartzen bestela pentsatzen duten aberkideen *abertzaletasuna*. Hegoaldean ere baditugu horrelakoak. Baina mimetismoak bultzatzen dituela uste dugu. Badakizue esaera famatu hori: "Condenamos la violencia vengativa de donde vengativa". Guk ez dugu behin ere ontzat eman. Baina aurkakoa ere ez. Alegia: "Aprobamos la violencia vengativa de donde vengativa". Ezta ere. Ez gaitezen abstrakzioen munduan bizi. *Gaur eta hemen* borroka harmatua kaltegarria da.

b) *Kultur arloa*, bigarrenik, eta hizkuntzarena bereziki: borroka mota hau hemen eramateko badago; eta, hortaz, indartu egin behar da.

c) *Lan politikoa*ren azkenik, elektoralismo hutsen erori gabe, guztiz beharrezkoa eta guztiz ere herri abertzaleak onartzeko modukoa da. Eta aztertu egin behar da.

Muga hor dagoelako, eta aurka ditugun bi legetasunak oso desberdinak direnez gero, *autonomia handia* behar dute izan hemengo organizazioek; koordinazioa, dena dela, beharrezkoa izanik.

HOTS: hemen dago koska. Kanpotik ikusita bederen, Iparraldean E.M.A. dago eta Euskal Alkartasuna dago; baina Euskal Batasunaren arrasto haundirik ez da somatzen. Hegoalderetik bederen.

Eta hor dago giltzarria: Iparralderako borroka harmatua gaitzetsirik ere, politika abertzelearen alorra eta euskal kulturarena hor daude, zai, beha. Eta ez da ongi konprenitzen zerk debekatzen ote dizuen aitzina jotzea.

Hegoaldeko HB eta gainerako mogimenduak kopiatu gabe, errana dago; baina borroka azkarki eramanez.

Lanean gogor hasten bazarete (hau ere aitortu beharra dago; eta lasai aitortzen dugu) *printzipio hutsengatik* ez-erik, zuek hor zaudetelako ere, hemengo egoera politikoa arduratuko da maizago Herri Batasuna. Zalantzarik ez dago honetaz.

Hortik aurrera *zerok* duzue azkeneko hitza; eta niri orain isiltzea dagokit.

Baina egin baino lehenago, Hegoaldeko abertzaleen izenean, eta Herri Batasuneko borrokakide guztien izenean: Atxik! Gora Euskadi Askatuta! Gora Euskadi Batua!

TXILLARDEGI